

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa (2006/962/EE).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, EBren Egunkari Ofizialan argitaratua, hauxe da : « *Recomendación 2006/962/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente* » (Diario Oficial de la Unión Europea, L 394 de 30/12/2006, pg. 10)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA
2006ko abenduaren 18koa,
etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa
(2006/962/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 149. artikuluen 4. paragrafoa, eta haren 150. artikuluen 4. paragrafoa aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeen Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseilu Europarrak, 2000ko martxoaren 23 eta 24an, Lisboan egindako bilkuran, ondorioztatu zuen Europako erreferentzia-esparru batek zehaztu behar duela etengabeko ikaskuntzak zer oinarritzko prestakuntza berri eman behar dituen, eta, horrez gain, nabarmendu zuen, hori dela Europak, globalizazioaren aurrean eta jakintzan oinarritutako ekonomiak eratzeko norabide berriaren aurrean eman beharreko erantzunaren funtsezko neurria.

Orduz geroztik, uanean-uean berretsi dira ondorio horiek; bereziki, Kontseiluak, Bruselan, 2003ko martxoaren 20 eta 21ean eta 2005eko martxoaren 22 eta 23an egindako bilkuretan, eta 2005ean onartutako Lisboako Estrategian.

(2) Kontseilu Europarrak Stockholmen (2001eko martxoaren 23 eta 4an) eta Bartzelonan (2002ko martxoaren 15 eta 16an) egin zituen bilkuretan, Europako hezkuntza eta prestakuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzak onartu ziren, baita lan-programa bat ere ("Hezkuntza eta Prestakuntza 2010 lan-plana"), eta horiek guztiak 2010. urtea baino lehen bete behar dira. Helburu horien barne dago jakintzaren gizarterako ahalmenak, eta beste ahalmen zehatzago batzuk, garatzea, hizkuntzak ikastea sustatzeko, enpresa-izaera garatzeko eta hezkuntzaren ikuspegi europarra lantzeko, oro har, hezkuntzan.

(3) Batzordeak «Etengabeko ikaskuntzaren Europako esparrua errealitate bihurtzea» izeneko komunikazioa zabaldu zuen, eta gerora, 2002ko ekainaren 27an, etengabeko ikaskuntzari buruzko Ebazpena ⁽⁴⁾ argitaratu zuen Kontseiluak. Bi agiri horietan azpimarratu zen erabateko lehenetara zuzentzea "oinarritzko gaitasun berriak" emateak. Halaber, etengabeko ikaskuntza eskolaurrean hasi behar dela aipatu zen, erretiro-adina baino geroago amaitzeko. (4) Europako Erkidegoak enpleguaren esparruan duen funtzionamendua hobetzeko asmoari jarraiki, martxoan eta abenduan Bruselan bildu zen Kontseilu Europarra, eta adierazi zuen beharrezkoa dela etengabeko ikaskuntza garatzea, eta bereziki azpimarratu zuen pertsona ez aktibo eta langabeentzako neurri aktiboak eta prebentzio-neurriak ezarri behar direla.

Ondorio horiek guztiak Lanaren Europar Taldearen txostenean oinarritu ziren; izan ere, txosten horrek nabarmendu zuen pertsonen aldaketetara egokitu behar dutela, pertsonak lan-merkatuan integratu behar direla, eta etengabeko ikaskuntzaren egitekoa funtsezkoa dela.

(5) 2003ko maiatzean, Europako erreferentzia-mailak onartu zituen ("erreferentzia-puntuak") Kontseiluak, eta, hori eginez, agerian utzi zuen Europako batez besteko errendimendua nabarmen hobetzeko konpromisoa hartu duela. Erreferentzia-maila horien barne daude irakurtzeko gaitasuna, ikasleen eskola uzteak, bigarren hezkuntzako goi-mailako zikloa amaitzea, eta helduek ere etengabeko ikaskuntzan parte hartzea. Horiek guztiak oso lotuta daude funtsezko gaitasunen garapenarekin.

(6) Kontseiluak hezkuntzaren egiteko handiari buruz 2004ko azaroan onartutako txostenak adierazten duenez, gizartearen kultura-ondare komuna mantentzen eta berritzen laguntzen du hezkuntzak, eta, funtsezko balio sozialak eta gizabidezko balioak ikasten laguntzen du; besteak beste, herritartasuna, berdintasuna, tolerantzia eta errespetua. Alderdi horiek bereziki garrantzitsuak dira estatu kideek aniztasun sozial eta kultural gero eta handiagoari aurre egin behar diotelako. Gainera, hezkuntzak funtsezko egitekoa betetzen du, kohesio soziala indartzeko elementua den aldetik, pertsonak lan-munduan sartu eta bertan garatzeko bideak irekitzen duelako.

(7) Batzordeak 2005ean onartu zuen Lisboako helburuek hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan xedatzen dutena betetzeko egin diren aurrerapenei buruzko txostena, eta txosten horrek agerian uzten du ez dela batere aurrerapenik egin hamabost urteko gazteen errendimendu txarra, haien irakurtzeko gaitasuna edo goi-mailako bigarren hezkuntza bukatzen duten ikasleen tasa hobetzeko. Eskola uzteko joeran aurrerapen txikiak egin direla aipatzen du txostena, baina dio ez direla bete Kontseiluak 2003ko maiatzean hitzartutako helburuak, hau da, 2010erako Europako erreferentzia-mailak lortzeko modukoak zirenak. Helduek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzea ere ez da hazi 2010ean erreferentzia-mailara iristeko abiaduran, eta, datuen arabera, probabilitate gutxi dago prestakuntza gutxi duten pertsonen prestakuntza-jarduera osagarrietan parte har dezaten.

(8) Gaitasunak eta trebetasunak etengabe garatzeko jarduera-esparrua onartu zuten Europako eragile sozialek 2002ko martxoan, eta esparru horrek azpimarratzen du, besteak beste, enpresek gero eta azkarrago egokitu behar dituztela beren egiturak, lehiakor izaten jarraitzeko.

Organizazioek etengabe ikasten dute, eta ikasteko bide horretan, garrantzi handiko jarduerak dira elkarlana sustatzea, hierarkia-mailak gutxitzea, erantzukizunak besteei uztea, eta izaera balio anitza handitzea. Ildo horretatik, lehiakortasunaren esparruan estrategia berriak abiarazteko, funtsezkoa da zehaztea zer gaitasun dituzten organizazioek, horiek aitortzea, indartzea eta soldatapeko

¹ EO C 195, 2006.8.18, 109. or. 109.

² EO C 229, 2006.9.22, 21. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko irailaren 26koa (oraingid EBren Egunkari Ofizialan argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.

⁴ EO C 163, 2002.7.9koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

langile guztiek haiek garatzea.

(9) 2004an, profesionalen hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko azterlana egin zen Maastrichten. Azterlan horren arabera, alde handia dago lanpostu berrietarako behar den prestakuntza-mailaren eta Europako langileek dutenaren artean. Azterlan horrek adierazten du Europako lan-eskuaren herena baino gehiagok, laurogei milioi pertsonak inguru, kualifikazio txikia duela. Estimazioen arabera, 2010era bitartean sortuko diren lanpostu berrien ia %50ek goi-mailako prestakuntza eskatuko dutela, %40ek baino gutxiagok goi-mailako bigarren hezkuntza bukatuta izatea, eta lanpostuen %15 soilik izango direla egokiak oinarritzko eskola-ikasketak dituzten langileentzat.

(10) "Hezkuntza eta Prestakuntza 2010" lan-programari buruz Kontseiluak eta Batzordeak 2004. urtean kaleratu zuten txostenak nabarmentzen du premiazkoa dela bermatzea herritarrek gaitu egingo direla, estatu kideek etengabeko ikaskuntzaren alorrean hartzen dituzten estrategien baitan.

Berrikuntzak erraztu eta sustatzeko, Europako erreferentzia eta printzipio komunak garatzea proposatzen du txostenak, eta funtsezko gaitasunen esparruari lehentasuna ematea.

(11) Gazteriarako Europako Itunak azpimarratu zuen gaitasun-oinarri komuna lantzeko premia dagoela. Kontseilu Europarrak, 2005eko martxoaren 22 eta 23an, Bruselan egindako bilkuraren ondorioei erantsia ageri da adierazitako ituna.

(12) 2005eko ekainean Kontseilu Europarrak onartutako hazkuntzarako eta lanpostuak sortzeko artezpide integratuek (2005-2008) nabarmentzen dute beren hezkuntza-maila hobetzeko funtsezko gaitasunak eman behar zaizkiela gazteei. Berariaz, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak egokitzera deitzen dute lanpostuak sortzeko artezpideek, gaitasunen esparruan eskatzen diren baldintza berriei erantzuteko. Bide hori jorratzeko, estatu kideen erreforma-programek zehatz identifikatu behar dituzte eskakizun profesionalak eta haiek betetzeko funtsezkoak diren gaitasunak.

Horrez gain, lanpostuak sortzeko artezpideek eskatzen dute genero-ikuspegia eta genero berdintasuneko irizpideak barneratuko direla bermatzea lanpostuak sortzeko jarduera guztietan; harik eta Europar Batasunean enplegu batez bestekoa %70ekoa izan arte, eta ehuneko hori %60koa izatea, gutxienez, emakumeen kasuan.

(13) Gomendio honek lagundu egin behar du kalitatezko hezkuntza eta prestakuntza, etorkizunera eta Europako gizartearen premietara orientatu eta egokitutakoa, garatzen, eta, horrez gain, estatu kideek abian jarritako jarduerak osatu eta lagundu behar ditu. Jardun horren helburua izango da hasierako hezkuntza eta prestakuntza-sistemek gazte guztien eskura jartzea zenbait bitarteko, funtsezkoak izango dituztenak funtsezko gaitasunak garatzen laguntzeko. Bitarteko horiek ikaskuntza osagarriko eta lan-bizitzarako oinarria izan behar dute, baita helduek beren funtsezko gaitasunak garatu eta eguneratzeko ere. Horretarako, etengabeko ikaskuntzaren eskaintza koherentea eta osoa egin behar da.

Gomendio honek, halaber, erreferentzia-esparru komun bat ezarri behar du European, eragile hauei dagozkien funtsezko gaitasunak zehazteko: arduradun politikoak, hezkuntza eta prestakuntza ematen duten pertsonak, gizarte-eragileak eta ikasleak. Horren helburua izango da estatuetako erreformak erraztea eta informazio-trukeak sustatzea estatu kideen eta Batzordearen artean. Informazio-truke hori "Hezkuntza eta Prestakuntza 2010" lan-programaren baitan egingo da, Estatu harik eta European hitzartutako erreferentzia-mailak lortu arte.

Halaber, landutako esparruarekin lotutako beste politika batzuk babestu behar ditu gomendio honek; hala nola, gizarte- eta enplegu-politikak eta gazteriarengan eragiten dituzten beste politika batzuk.

(14) Erregelamendu honen helburua da erreferentzia-puntu komun bat ezartzea estatu kideen erreformak bultzatu eta errazteko eta estatu kideen arteko lankidetzari indartzeko; hala ere, estatu kideek ezin dute helburu hori, beren kabuz, behar bezala bete, eta, ondorioz, helburu horren betetze-maila nabarmen handiagoa izango da jarduerak Europako Erkidegoko erakundeetatik zertzen badira. Hori horrela izanda, eta, Tratatuko 5. artikuluan xedatutako subsidiariorotasun-printzipioari jarraituz, Erkidegoak neurriak har ditzake, printzipio horren baitan. Artikulu horretan xedatutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu horiek lortzeko behar dena xedatzen mugatzen da Gomendio hau.

JARDUERA HAUEK EGITEA GOMENDATZEN DIETE ESTATU KIDEEI:

Etengabeko ikaskuntzaren estrategien testuinguruan, funtsezko gaitasunen eskaintza garatzea pertsona guztientzat, eta "Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak — Europako erreferentzia-esparrukoak" erreferentziazko bitarteko moduan erabiltzea, honako hau lortzeko (eranskinean ageri dira, eta "erreferentzia-esparru" esango zaie hemendik aurrera):

1. Hasierako hezkuntza eta prestakuntzak behar bezala zaintzea gazte guztien eskura jartzen direla funtsezko gaitasunak garatzeko bitartekoak, eta, horien bidez, gazteak helduarako prestatzea eta ikaskuntza osagarriak egiteko eta lan-bizitzarako oinarriak jartzeko aukera ematea;

2. Gazteekin neurri egokiak hartuko direla zaintzea, baldin eta gazte horien egoera pertsonal, sozial, kultural edo ekonomikoaren ondorioz, hezkuntza-egoera ahulean badaude, eta, egoera horren ondorioz, laguntza berezia behar badute beren heziketa-potenzialtasun osoa garatzeko.

3. Helduei beren bizitzan zehar funtsezko gaitasunak garatu eta eguneratzeko aukera ematea, eta bereziki, herrialde-, eskualde- edo herri-mailan lehentasuna duten taldeei arreta ematea, esaterako, gaitasunak eguneratu behar dituzten taldeei;

4. Helduen etengabeko ikaskuntzarako hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura egokiak ezartzen direla bermatzea, baita irakasle eta prestatzaileentzako ere. Horrez gain, balioztatze- eta ebaluaketa-prozedurak ezarri behar dira, eta neurriak hartu etengabeko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ikaskuntza eskuratzeko eta laneratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko. Halaber, laguntza-baliabideak jarri behar dira ikasleentzat, helduen premia eta gaitasun anitzak aintzat hartuko dituztenak.

5. Lan-politika, politika soziala, kulturala, berrikuntza-politika eta gazteei eragiten dieten bestelako politiken arteko loturak estutzea, baita solaskide sozialen eta bestelako alderdi interesatuen lankidetzaren sustatzea ere, herritar partikularrei zuzendutako helduentzako hezkuntza- eta prestakuntza-eskaintza koherentea izan dadin;

BATZORDEAK HAU EGITEKO ASMOA DUELA AINTZATESTEN DUTE:

1. Estatu kideek ahaleginak handitzea beren hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak garatzeko eta Gomendio hau aplikatu eta hedatzeko, eta, halaber, erreferentzia-esparrua *parekoen arteko* ikaskuntza errazteko eta praktika edo ohitura onak trukatzeko erreferentzia gisa erabiltzea, eta, "Hezkuntza eta Prestakuntza 2010" lan-programan bi urtez behin egin beharreko txostenetan, egindako aurrerapenen bilakaeraren jarraipena egiteko eta aurrerapenak jakinarazteko baliatzea;
2. Europako Erkidegoko hezkuntza- eta prestakuntza-programak abian jartzeko erreferentzia gisa erabiltzea erreferentzia-esparrua, eta programa horiek funtsezko gaitasunak lortzen lagunduko dutela bermatzea;
3. Erreferentzia-esparruaren erabilera sustatzea Europako Erkidegoak gaiarekin lotuta egiten dituen politiketan, bereziki, politika sozialen, lan-politikaren, gazteria-politikaren eta kultura-politikaren esparruan, eta, horrez gain, lotura berriak sortzea esparru horretan jarduten duten gizarte-eragileekin eta bestelako erakundeekin;
4. Erreferentzia-esparruak "Hezkuntza eta Prestakuntza 2010 programan" duen eragina aztertzea, eta izandako esperientziak eta etorkizunerako inplikazioak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraztea, beranduenez ere, 2010eko abenduaren 18an.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

J.-E. ENESTAM